



ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO APAREJADORE ETA ARKITEKTO TEKNIKOEN ELKARGOekin SINATUTAKO LANKIDETZAKO HITZARMENA

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 29a

Egun on denori,

Ongi etorri eta eskerrik asko hitzarmen hau sinatzera etortzeagatik, Osasun eta Kontsumo Sailak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoekin sinatuko duenekora.

Nirekin mahaian dira:

- Arabako Elkargoaren presidentea, Agustín Mora Alonso,
- Bizkaiko Elkargoaren presidentea, Iñaki Pérez Pérez,
- Eta Gipuzkoako Elkargoaren presidentea, Alfonso Arroyo de la Hoz.

Gaurkoan, Osasun sailburu baino, Kontsumo sailburu lana egitea dagokit. Hala ere, bitxikeria bezala, gaurkoan, kontsumitzaileen osasunerako, kroniko bihurtu den arazoaz jardungo dugu. Etxebizitzen erosketa/salmentarekin eta horien mantentzeak eskatzen digun gremioekiko harremanekin zerikusia duten erreklamazioak hain zuzen ere.

Zergatik sinatzen dugu hitzarmen bat Euskadiko aparejadore eta arkitektoekin? Ez dakizue, baina segur aski imajinatzen duzue.

Etxebizitza ez da erreklamazio gehien sortzen dituen sektorea. Gehiago dira telefonia mailakoak, edo banku mailakoak. Baina zenbateko handiena duten kexak eragiten ditu. Gure bizitzako inbertsio handiena -behintzat hiritar gehienentzat- gure amets gaiztorik handiena

bihurtzen da. Euskaldunok kexatu egiten gara: eraikitzailerak ez ditu plusbaliaren zerga ordainarazi, eraikuntzan erabilitako materialak ez dira agindutakoak, hutsuneak eraikuntzan, ezkutatutako iruzurrak, emandako hitza bete ez duten gremioak ...

Urtean zehar, Kontsumo Zuzendaritzak 300 erreklamazio inguru (295) erregistratu ditu, eta horietatik %75ek zerikusia dute erosketa prozesu eta salmenta promozioekin. Gainontzeko %25, orotara 68, konponketa eta gremioekiko harremanei buruzkoak dira. (Erraztutako datuak urtarrilaren 1etik eta aste honetara artekoak dira).

Gaur hobetu nahi dugu. Protesta kopuru hori murriztu nahi dugu eta, sortzen badira – sortu egingo baitira-, hiritarrei eskura dugun zerbitzurik onena emango diegula bermatuko diegu. Horretarako sinatzen dugu hitzarmen hau Euskadiko aparejadore eta arkitekto teknikoen hiri elkargoekin. Hitzarmenak lankidetzak, kooperazio eta koordinazioko programa ezartzen du, berme handienarekin, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak defendatzeko etxebizitzaren inguruko kontuetan.

Gaurtik aurrera, Osasun eta Kontsumo Saitetik eta elkargo profesionaletatik, eskura ditugun baliabide guztiak jarriko ditugu jasotako erreklamazioak aztertzeko eta beharrezko txostenak jaulkitzeko zehapen prozedura hasten denean. Hitzarmen hau, hasiera batean, abenduaren 31 arte sinatzen dugu, baina bi alderdiok hurrengo urteetan ere luzatzeko asmoa dugu.

Eskerrik asko.



FIRMA CONVENIO DE COLABORACIÓN CON LOS COLEGIOS DE APAREJADORES Y ARQUITECTOS TÉCNICOS DE ÁLAVA, BIZKAIA Y GIPUZKOA

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2010

Egun on denori,

Bienvenidos y gracias por acudir a la firma de este convenio a cuatro, que el Departamento de Sanidad y Consumo rubrica hoy con los Colegios de Aparejadores y Arquitectos Técnicos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

Me acompañan en la mesa:

- El presidente del Colegio de Álava, Agustín Mora Alonso,
- El presidente del Colegio de Bizkaia, Iñaki Pérez Pérez.
- Y el presidente del Gipuzkoa, Alfonso Arroyo de la Hoz.

Hoy me toca hacer de consejero de Consumo, más que de Sanidad. Pero, curiosamente, vamos a hablar de un problema que, para la salud de los consumidores, también se ha convertido en crónico. Las quejas relacionadas con la compra/venta de viviendas y las relaciones con los gremios que su mantenimiento nos obliga a mantener.

¿Por qué firmamos un convenio con los aparejadores y arquitectos técnicos de Euskadi? No lo saben, pero seguro que se lo imaginan.

La vivienda no es el sector que más reclamaciones genera. Le ganan, con mucho, la telefonía, también la banca. Pero sí es el que provoca las quejas de más cuantía. La mayor inversión de nuestras vidas -al menos para la mayoría de los ciudadanos- se convierte en

ocasiones también en nuestra peor pesadilla. Los vascos solemos quejarnos de que el constructor nos ha hecho pagar el impuesto de la plusvalía, de que los materiales utilizados en la construcción no son los prometidos, de defectos de construcción, vicios ocultos, gremios que no han cumplido con la palabra dada...

En lo que va de año, la dirección de Consumo ha registrado casi 300 reclamaciones relacionadas con vivienda (295), de las que un 75% tienen que ver con el proceso de compra y las promociones de venta. El 25% restante, 68 en total, están provocadas por reparaciones que, al parecer, no lo son tanto y relaciones con los gremios. (Los datos que les facilitamos corresponden al periodo de tiempo que va entre el 1 de enero y esta misma semana)

Hoy queremos mejorar. Nos hemos propuesto reducir ese número de protestas y, si se producen –que se producirán-, garantizar a los ciudadanos que vamos a darles el mejor servicio a nuestro alcance. Para eso firmamos este convenio con los tres colegios de aparejadores y arquitectos técnicos de Euskadi. Hemos establecido un programa de colaboración, cooperación y coordinación con las tres entidades profesionales para garantizar una mejor protección de los derechos de las personas consumidoras y usuarias en materia de vivienda.

Lo que vamos a hacer a partir de hoy, tanto desde el Departamento de Sanidad y Consumo como desde los colegios profesionales, es poner todos los medios a nuestro alcance para favorecer la investigación de las reclamaciones recibidas y facilitar la emisión de los informes que sean necesarios cuando se abra un proceso sancionador. Firmamos el convenio, en principio, hasta el 31 de diciembre, aunque con el deseo de ambas partes de prorrogarlo en años sucesivos.

Muchas gracias.